

Noaua!!!

www.noaua.com



Igande honetan,
Andatza Eguna



25 urte bete ditu Ziortzak



Sarrereren salmenta



SERBIKUTXA KUTXAZAINAK
943 00 12 00
www.kutxa.net



ANDOAINGO UDALA



Guzurkeko For Aldadia



bastero
KULTURGUNEA



Gorringo taldeak aurkeztuta, **XABINAITOR**

MAIATZAK 7, Ostirala 21:30h Auditorioan



Andoainen antzeziana

Informazio gehiago: 943.303.540 www.andoain.org

ATE IREKIAK

etorri aurretik izena eman!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



PREST



**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE

MAIATZAK 6 osteguna - 17:30

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI

MAIATZAK 13 osteguna - 18:00

IRUN 2. zikloa

MAIATZAK 6 osteguna - 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORATZA

MAIATZAK 8 larunbata - 11:00

areto nagusian

Albiste iruditan !!

Ongi etorri beroa jaso zuen Joxe Domingo Aizpuruak

Bezperan aske utzi ostean, apirilaren 20an ailegatu zen Joxe Domingo Aizpuru Usurbila. Ongi etorri beroa jaso zuen Kale Nagusian senideek duten okindegi parean. Zain zituen hurbilekoak, lagunak eta hainbat herritar. Une hunkigarriak bizi izan ziren, autotik irten zen unetik. Lore sorta jaso zuen txalo artean, eta berarekin batera atxilotu eta kartzelaratu zituzten euskal herritarrek gogoan izan zituen. Une hunkigarriak bizi izan ziren, besteak beste, aske utzi berri duten Marisa Alejandro herritarra edota hurbileko senitartekoak besarkatzera gerturatu zitzaizkionean.



PASA DEN ASTEARTE ILUNTZEAN EGIN ZIOTEN ONGI ETORRIA.

Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 EGUZKITZALDEA - 20.170 USURBIL
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpuru, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpuru, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpuru, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpuru.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilibidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

ORGANIKOA BILTZEN, PAREKORIK EZ **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

DYAK SOROSLE IKASTAROA ANTOLATU DU **8. OR.**

KALE ANTZERKI EGUNA, IRUDITAN **12. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

J.ORBEGOZO

ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA

BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789



AITOR LANDALUZE

Ongi etorri Caruso

Irriu abesbatzako nire lagun batek atzo email bat jaso zuen Carusoren partetik. Ez pentsa mamu batekin txateatzen duenik ez; Caruso irriu bat da. Badakizue, urtero udara pasatzera Usurbilera etorri eta elizaren dorrean bueltaka hegan ibiltzen den txori beltz horietako bat.

Datorrela abisatzeko idatzi dio eta nik noski, bere harremanaz galdetu diot. Nire laguna, Irriu abesbatzako tenoreak kontatu didanez, aspaldiko harremana du txori horrekin. Caruso Usurbilgo elizaren horma sendoan jaioa da, eta bertan habia du egiten, harrezkero maiatzetik abuztura Usurbilen pasatzen du udarako oporraldia. Bere esanetan beraiek dira usurbildar jatorrenak. Nahiz eta Afrikan bizi, kumeak Usurbilen jaiotzera urtero etortzen dira eta. Gustukoa omen du dorreko bungalowtik goizetan hegaldia altxa baino lehen plaza ikustea. Bere kantuetan esaten duenez, plazako etxe guztiak korro korroan ikusten ditu dantzan, bata bestearen ondoan, plaza-erdian demarriak txistua eta danbolinarekin jotake ari direla.

Carusok, bere lehenengo hegaldian frontoiaren txapela laz-tanduz gainetik pasa zueneko ederki gogoratzen du eta dorrean itzuli azkarrenaren errekorra ezarri zueneko harro kontatzen du. Ondo gordeak ditu ere uztailako arratsalde sargoriak, demarriak bero-bero eginak ea zein ipurdi goxoak

itzala emango dien zain. Eta nola ahaztu bikotearekin egindako hegaldi azkar eta bihurriak Oriako urgainetan, ekaineko arratsalde luzeetan Gipuzkoako moskitorik goxoak Txokoaldeko erriberetan ehizatzen, eguzki potolo laranja batek kolorea ematen dien bitartean.

Nire lagun tenorea ere pozik da berriz ere izango dituztelako arratsalderoko tertuliatxoak; Carusok berriz ere errieta egingo dio, "Oria garbiago dagoela bai baina..." esan, eta urte baten buruan egin diren txikizioak komentatuko dituzte. Caruso kantari aparta izateaz gain, ekologista militantea omen da ere.

Baina, Carusok onartzen ez duen arren, beraien benetako zergatia honaino etortzeko, beste bat da. Orain arte aipatutakoak eragina dutela dudarik ez; klima, janaria, elizandorreko bungalowko atetik plazako etxeak korrokorroan ikustea, demarriak, tertuliak, Oria bazterreko paseoak arratsaldeetan, maitasuna, kumeen jaiotzak... Bai horiek guztiak arrazoi potoloak dira, baina nire lagun tenorearen ustetan irriiak etortzeko benetako arrazoiak beste bat da. Festak. Sagardo egunerako hemen dira, sanjuanak, santixabelak, santioak, eta sanestebanak pasatakoan... Trasteak hartu eta berriz ere Afrikara itzuliko dira.

Lasai etortzeko erantzun dio nire lagunak Carusori.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorruti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Ugaitz Agirre - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Ika-mika !!

Bost egun inpunitatearen kobazuloan

Lau hilabete. Horixe izan du Joxe Domingo Aizpuruak eta bere sendiak herrira itzuli zenetik lasaitasunerako tarte. Azken urteko gorabeheren zurrubiloan sartu zuen, berriro ere, epaile baten aginduak bere morroi eraginkorren laguntzarekin.

Aurtengo apirilaren 14a ez zaio berehala ahaztuko eta ez, preseski, Errepublikaren eguna izateagatik. Beste bederatzik euskal herritarrekin batera, bost egunez, aspaldi pairatu zuen amesgaiztoa berritu zitzaion egun hartan.

Justu bizitza normaldurako bidea hartzen ari zela, hara non joan den abenduan, espetxe-zigorra bete ostean, etxeratzeko zorian zela genituen beldurrak egi bilakatu diren lau hilabete geroago.

Guardia Zibilak ondo asko zekien Joxe Domingok "legearekin" zituen "zorrak" kitatuak zituela. Ederki ezagutzen zituen bere osasun arazoak. Komisaldegian ber-

tan argi eta garbi aitortu zioten hori guztiaren jakitun zirela baina "guk nahi duguna egiten dugu" izan zen, ohi moduan, haien argudio mendekatzailea.

Bost eguneko sufrikarioa berarentzat eta familiarentzat. Bere etxea eta arrebarera arakatuak eta miaketetan zirenak (omen) eta ez zirenak eramanez, baita senideek etxean zuten dirua ere; habeas corpus aplikatzeko eskaera ukatua, oraindik gaixotasun larriaren susperraldian dagoenean; bere egoeraz ezer jakin gabe, ez non, ez nola zegoen ere... Eta infernu horretan, gainera, hain demokratikoak diren ohiko komunikabideen lerdere nazkagarria aguantatu behar, batzuentzat errugabetasun printzipioa ukatutako (beste) eskubidea baita.

Bost egun eta bost gau inpunitatearen kobazuloan pasata, "pasatuta" gurutzatu zuen Madrilgo Audientzia Nazionalako atea: bost egun jan gabe, ahul, zorabiatu-

ta, dardarka, begietan izuaren lainoa zerio-la jaso zuten familiakoek.

1994n Polizia frantsesak espainolaren esku utzi zuenean bezala, inolako kargurik gabe bidali zuen epaileak. Irrati, telebista eta periodikotan aiereratutako horrenbeste akusazio eta "hiper-mega-ziurtasunak" - Rubalkaba ministroak zioen bezala- ezertan geratu dira. Inork entzun edo irakurri al du gehiegikeria izan dela? Idatzitakoak eta esandakoak zuzendu al dituzte? Barkamenik eskatu al diote jasan duen tratua eragatik?

Herriko lurrera eta herritarren, lagun eta senidearen babesera bueltan, bost lore apartatu zituen etxera ongi etorria opatzeko eman zioten sortatik. Barruan geratutako bost kideei eskaini zizkien. Duintasunaren talaiatik izugarrikeriaren kobazulora igorritako bost muxu goxo.

Usurbilen Nahi Ditugu! elkarte

* Ezizena ere onartzen da, baina idatziaren egile den gizabanakoaren NA edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da Ika-mikarako idatzia (Ika-mika araudia, NOAUA! astekaria)

Gipuzkoa osoan baino organiko gehiago biltzen da hemen

Usurbilen 77,5 tona organiko bildu ziren martxoan eta apirilean 80 tonatik gora jasotzea espero da. Inpropioen maila %1,03koa da, purutasun handiko organikoa beraz. Zerbakiok bost edukiontzien sistema jarria duten beste udalerrietako emaitzekin parekatuta, aldea nabarmena da. Usurbilgo martxoko bilketa datuak, Amarako eduki ontzi marroian jasotako organiko kopurua hirukoizten du adibidez, Usurbilek ia 6.000 biztanle izan eta Donostiako auzoan ia 25.000 lagun bizi direnean.

Aldea argiagoa da, Usurbil Gipuzkoarekin parekatzen bada. Herrialde mailan jasotzen den zati organikoaren %52,92 Usurbilen bakarrik biltzen da. Gainerako %47,08, bosgarren eduki ontzia duten Gipuzkoako udalerrietan.

Aipatutakoak Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketak kaleratutako datu ofizialak dira. Apirilaren 23an aurkeztu zituzten prentsaurrekoan, San Marko Mankomunitateko lehendakari Rikardo Ortegak, lehendakari orde eta Usurbilgo udaleko ingurumen arloko zinegotzi Imanol Azpirotzek eta Usurbilgo udaleko alkate Xabier Mikel Errekondok.

Atez ate, etxe atarrietatik enpresetara

Datuok bosgarren edukiontzia jarrai duten udalerrietako birziklatze mailan islatzen dira. Azpirotzek berri eman zenez, Foru Aldundiak Gipuzkoako hainbat udalerrietan jarri zituen 137 edukiontzietan, asko jota herritarren %14ko parte hartzea baino ez du sustatu.

Usurbilen aldiz, egoera zeharo desberdina da. Duela urtebete atez ateko bilke-

ta sistema abian jarri zenetik, herritar guztiek birziklatzen dituzte hondakin zati desberdinak, organikoa barne. Prentsaurrekoan alkateak gaineratu zenez, "udalerrri oso osoak egiten du atez ate". Ez baita ahaztu behar, etxe atari eta herriko denda edota tabernetan burutu dela bilketa sistema berria lehen urte honetan, baina duela bi hilabetetik industria guneetara hedatu da atez ateko sistema, baita Urbil merkatal gune handira ere.

Alkateak enpresak zoriondu nahi izan zituen, bilketan parte hartzen ari direlako. Baita, noski, herritarrak ere, Errekondoren esanetan, "Ama Lurraren zaintzan egindako ahaleginagatik ere". Sistema honi oztupoak jartzen ari zaizkiela salatu zuen Azpirotzek. Baina "Zero Zabor" egitasmoaren bidetik jarraituko dutela berretsi zuen Mankomunitateko lehendakariak. "Gipuzkoarako konponbidea dugu. Zero Zaborrerako bidean goaz", adierazi zuen. Foru Aldundiari beste behin erraustegi egitasmoari lotutako sei urteko moratoria eskatzeaz gain, Zero Zabor programa bultzatzea galdegin zuen Ortegak. Herritarrek beren lana ondo egiten dutela, arazoa orain arte



PASA DEN ASTEAN EGINDAKO PRENTSAURREKOAN HAINBAT DATU ESANGURATSU EMAN ZITUZTEN.

indarrean egon den sistema bera dela aipatzen zuen.

Atez ateko bilketa, merkeagoa

Edukiontzien eta atez ateko bilketen sistemak alderatuta, edukiontzien sistemak atez atekoak eragindako gastuak bikoizten ditu, halaxe ziurtatu zuten prentsaurrekoan. Zehazkiago aipatuta, bi ereduotako bilketa eta tratamendu gastuak paretsu egon arren, bilketa zerbitzuaz gain, eta edukiontzien sisteman ez bezala, papera, kartoia eta ontziak saldu ta ate ateko bilketarekin diru-sarrera handiagoak lortu ditu Usurbilgo Udalak aurtan.

Jasotako organikoa, herriz herri alderatuta

UDALERRIA	BIZTANLE KOPURUA	JASOTAKO ORGANIKOA (KG)
Amara	24.805	25.259
Aretxabaleta	6.469	5.875
Azkoitia	10.787	11.218
Azpeitia	14.054	8.726
Zarautz	22.323	11.023
Zumaia	8.837	6.850
Usurbil	5.919	77.500

Iturria: Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioa. 2010eko martxoa.

Ika-mika!

Bizileku duin bat aurkitu nahi dugu

Castellóneko bikote bat gara bi haur txikirekin. Urtarrilaz geroztik Santueneko pisu konpartitu batean bizi gara. Hamar metro karratuko gela batean bizi gara, komuna eta sukaldea beste bi pertsonekin partekatzen ditugu.

Gure haurrekin leku batean bizitzeko

laguntza eskatu diogu Udalari, gizarte laguntzaileari, mojangana ere jo dugu. Baina ez dugu erantzunik jaso eta inork ez digu laguntzen. Argi utzi nahi dut ez dugula inork dirua ematerik nahi, ezta etxe bat ordaintzea ere, bizileku duin bat aurkitu nahi dugu soilik.

Inork lagundu banazake edo bizi gaitzkeen pisu edo lokalen baten berri badu, deitu telefono hauetara: 630 720 827 edo 634 967 262. Eskerrik asko. Zortea izatea espero dut, hemen lanpostua baitugu eta gure seme-alabak elika ditzakegu.

Susana Palazon

KALEZAR

MADDI GALBETE

Adierazi, lotsatu gabe!



Harrigarria da pertsona bakoitzak zenbat eta zein modu desberdinetan adierazi dezakeen. Hitzak, keinuak, marrazkiak, musika, idatziak... Adierazteko mila era daude eta denak dira baliogarriak. Askotan ez gara konturatzen modu honek guztiak existitu egiten direla, eta konturatzen ez garenez, normalean ez ditugu haue-tako asko erabiltzen eta betikoetara mugatzen gara. Joan den asteburuan izan zen Usurbilgo Kale Antzerki Eguna, eta bertan ere adierazteko modu desberdinekin egin genuen topo: hitzez, dantza bidez, gorputzarekin akrobaziak eginez, mimi-kaz, kantuz... Adierazpenez bete zen herria eta adierazpen iturri bihurtu ginen bertan geundenok ere.

Egun polita izan zen benetan, goizetik hasita goizaldera arte, eta sekula egon gabe nintzen herritar pila batekin egoteko aukera izan nuen gainera. Akaso egun hartan askotan baino askeago sentitu ginelako, edo nintzelako ni behintzat, eta adierazteko inolako lotsa eta mugarik gabe.

Zer pentsatu handia ematen didan gauza bat da hau, zergatik kostatzen ote zaigun horrenbeste adieraztea. Mugaz betetik gaudela pentsatzen dut maiz, eta horregatik saiatzen gare-



la, sarritan, ahalik eta gutxien adierazten. Badirudi gure sentimenduek edo berauen adierazpenak beldurra ematen digula, eta gezurretazkoa den gidoi bat antzesten kostatzen egiten bazagu, are eta zailagoa egiten zaigu gurea den gidioa azaleratzea. Niri honek pena handia ematen dit, adierazpena elkarbizitzarako funtsezkoa iruditzen zaidalako. Horregatik, gaurko idatziak duen helburu bakarra ADIERAZTEAN dago, LOTSA-RIK GABE eta NAHI DUGUN MODUAN adieraztean. Ez delako sentitzen duguna adieraztea baino gauza politagorik.

SANTUENEA

ALEX TELLO

Eta zure idatziekin zer?



Asko idazten nuen lehen. Idatzi anitz. Zertaz? Oroz. Askotariko idatziak. Erraz idazten nituen idatzi zailak. Errazak osterak, kostata. Sekula ez dut hiztegi aberatsa izan, agian ikastolan alferra izan nintzelako. Derrigortuta sentitzen nintzelako akaso. Ez nuen ikusten lanaren balioa edo garrantzia. Bai ordea, etekina. Bost batekin aske sentitzen bainintzen. Berdin zitzaidan jakintza maila, ez nuen ikusten eza-gutza horien balioa bizitzarako. Ezjakintasunarekin bizi daiteke. Beraz, esan nezake, idazketaren teknika minimoaz jabetu nintzen arren, ez nuela ikasi. Hala, egun, ez dakit idazten ere ba ote dakidan. Hasteko, irakurlea kontutan izan behar dugu eta lerro hauen hartzaileen hainbat ezaugarri jakitea komeni... Horrek ez al du idazketa baldintzatuko? Zeren, zertarako egin? Zer adierazi edo eragin nahi dugu? Badira ere kontutan izan beharreko gehi-go: jarduerari eskainiko zaion denbora, ekoizpenari loturiko emaitza... Idatziak tiraderatik (eta ordenagailutik) liberatu nituen eta batzuegana heldu ziren. Erabilera ugari izan dituztelarik: irakurriak izan dira, ez irakurriak, argitaratuak, isilduak, musikatuak, antzertuak, baztertutak, irudi bihurtuak, ukatuak, interpretatuak, distortsionatuak, eskertuak, kritikatuak, estimatuak, gutxietsiak, gogoratuak, ahaztuak, moldatuak eta abar. Eta zure idatziekin, zer?

ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

Obrak itzuli dira

Duela bi asteko Atxegaldeko kronikan aipatu zen Usurbildik gure auzora doan bidea egoera kaxkarrean geratu zela, lehenago eginiko obren ondorioz. Gainera denok ezagutzen ditugu aparkalekuekin izan ohi ditugun buruhaustekak eta jada bide honetan bertan, autoak espaloi ondoan aparkatzeko beste aukerarik ez zen geratzen.

Egoera hau ikusirik badirudi soluzio bat emateko asmoz, eraikitako bi etxebizitza bloke berrien parean espaloia altxa eta orain aparkaleku ilara berria egiten dihardute. Aparkaleku faltaren arazoa ez da guztiz konponduko baina bai zertxobait hobetu. Ea behintzat lanak amaitzean bidea txukun-txukun uzten diguten auzotarro. Estuago geratuko bada ere, bi norabideetan autoak arazorik gabe igaro daitezela.

Bestalde gaia erabat aldatuz, abuztuko azken asteburuan ospatuko diren Atxegaldeko festak prestatzeko bilerak laister hasiko ditugu. Auzoko gazteak gogotsu gaude lanerako eta ea denon artean lortzen dugun iazko festek izan zuten arrakasta aurten ere errepikatzea. Guztion esku dago. Hurrengora arte.



URDAIAGA

NEREA AIZPURUA

Igandean, Andatzara



Mendizaleak, auzotarrak, herritarrak Meta ingurukoak... Haietako bat baino gehiago ikusiko ditugu Urdaiatatik gora, Andatzarako bidea hartzen igande honetan. Maiatzeko lehen igandean ospatu ohi da Andatza Eguna, izen bera daraman mendizale taldeak antolatuta, azken urteotan gainera, zizurkildarrekin batera prestatu izan ohi dutena. Ziotza elkarteak eta bi herrietako udalek elkarlanean prestatu izan baitute eta Andatza Mendizale Taldearekin batera, tradizio luzea duen eta urtero hutsik egiten ez duen hitzordua.

Aurtengoan ere, egarriz edo gosetuta 562 metrotako garaierara ailegatzen denak izango du bai jan edana, antolatzailleek hamaiketako prestatuko baitute. Erromeria giroa piztuko duten trititilariak alaituko dute goiza. Ondo pasa nahi duenak, herri kirol eta jokoetan parte hartzeko aukera izango du. Guztia, babeslekuaren inguruan. Eguerdia pasa arte, izango da bai festa giroa Andatza gain hartan. Ia eguraldiak laguntzen dien, bai antolaketa lanetan arituko direnei, baita noski bertara joateko asmoa dutenei ere.

Oinetako eta arropa egokia jantzi beraz, eta maiatzaren 2an Andatzara. Eta kontuan izan. Krisi garai hauetan, ez



ahaztu patrikan diru pixka bat eramatea. Kukua entzuten duenak, diru faltarik ez duela izango esan izan ohi da. Beraz, eurotxo batzuk eraman eta zorte on!

Andatza eguna pasata, hiru hilabete baino ez dira faltako Sanixtebanetarako. Jaietako prestaketa lanak aurrera doazen artean, udaberriko eguraldiarekin ez da bisitaririk falta gain honetan. Parke eta plaza inguruetan egun edo arratsalde pasa datorren "turista" mugimendua nabaria da azken aldian.

KALEBERRI

ANA URDANGARIN

III. Kale Antzerki Eguna



Berriz ere esango dute gure herrian badela ospakizunen bat eta ez dugula aukera bakar bat ere galtzen ondo pasa eta parranda egiteko.

Pasa den larunbatean, apirilaren 24an izan dugu III. Kale Antzerki Eguna eta sekulako eguraldi ederra izan dugu lagun gainera. Eguerdian hasi eta gauerdia arte, egun guztian zehar egon ziren antzerki taldeak eta eskaini dituzten emanaldien maila altua izan da gainera.

Herriko Txerriki taldeak beren ikuskizuna eman zuen eta azkenak izanagatik ere beren artista sena plazaratu zuten! Bejondeizuela, izan ere ez da erraza hor mantentzea eta honelakotan ikusten da ederki jendea gogotsu aritzen dela entseguak eta bilkurak egiten.

Giro aparta izan genuen larunbatean eta espero dut hone-lakoak gozatzeko aukera izaten urte askoan jarraitzea! Herriko kultura inoiz baino biziago dagoelako eta herriko jendearen parte hartzearekin gainera.

Eskerrik asko Alex fin fin aritzeagatik dena horren txukun atera dadin saiatzeagatik! Gora gure herriko ARTIXTAK! Ondo pasa eta hurrengora arte.

ZUBIETA

GARAZI ITURRALDE

Karakolak euritara bezala

Txorien kantuekin batera heldu da ere Udaberria, eta baita eguraldi ona ere. Familiarekin igande goizetan paseatzeko egun zoragarria.

Hau guztiarekin batera, bukatu dute Lasartetik Zubietarainoko bidea ere. Geroz eta jende gehiago ikusten da ibilbide zoragarri hau familiarekin batera egiten, goiz pasa, arratsalde pasa...

Lehenago harrিতuta geratu nintzen. Eguraldi oso ona egiten zuen, eta inoiz baino jende gehiago zetorren Zubietako kaxkora umeekin eta beraien jostailu guztiarekin. Orain plaza haurrez beterik ikusten da. Bi parkeak umez josita, frontoia ere betea eta plazan baloiarekin alde batera eta bestera, lagunak eta lagunak egiten.

Baina arazo bat nabaritzen dut: euskera gero eta gutxiago entzuten da. Gurasoen artean gaztelera hitz egiten dute eta haurrekin ere askotan. Plazan lehen baino gaztelera gehiago entzuten dela esan nahi dut. Ondo dago kanpotik jendea etortzea eta gure plaza ezagutzea, baina euskaraz ere hitz egin dezatela, ze azkenean plaza ia osoan gaztelera besterik ez da entzuten. Baina, ez geratu etxean. Atera plazara eta jolastu euskaraz!



DYAk antolatu duen ikastaroan, sorosle titulua eskuratzeko aukera

Egunerokotasuneko arrisku egoerei aurre nola egin jakiteko ikastaroa antolatu du DYA Gipuzkoak maiatzerako. Parrokiako lokaletan eskainiko dute ikastaroa, maiatzaren 3an hasi eta 21era bitartean.

Bihotz eta birrikak nola suspertu edota zauri, hausturak eta erredurak nola sendatu irakatsiko zaie parte hartzaileei. Alderdi teoriko eta praktikoak uztartuko dituen ikastaroak oinarritzko ezagutzen berri emango du, modu erosoa eta atseginean.

Egunean bi ordu

Sorosle eta lehen sorospenari buruzko saioak, maiatzaren 3tik 21era luzatuko dira. Asteleheneetik ostiralera, bi orduz eta arratsalde eskainiko dira klaseak, 19:00etatik 21:00etara. Kale Nagusiko 25 zenbakian Parrokiako lokaletan.



IKASTAROA PARROKIAKO LOKALETAN EMANGO DUTE.

Izen-ematea, 90 euro

Izen ematea eta informazio gehiago honako telefono zenbakian eskura daiteke: 943 464 622.

90 euroko kuota ordaindu beharko du ikastaroa egin nahi duenak eta ikasle kopuru mugatua izango du. Ikastaro amaierako frogak gainditzen dituenak, Sorosle Titulua eskuratu du eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) ikasleek, baita bi kreditu ere.

Astelehenean, odol ematea

Odol emateak hitzordu berri bat dute datorren astelehenean, maiatzaren 3an, herriko anbulatorioan. Ohi bezala, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara izango da odola emateko aukera.

Ohiko odol emateei ez ezik, herritar denei zuzendatutako deialdia da hau. Bete beharreko baldintzak hauek dira: ezinbestekoa da 18 urteak beteak izatea eta osasun arazorik ez izatea.

Egon daitezkeen zalantza guztiak argitzeko, medikua izaten da odol emate guztietan.



ARRATSALDEKO 19:00ETATIK AURRERA, ANBULATORIOAN.

Odol emateen oharrak dioen bezala, "anima gaitzen, ez da denbora asko behar, borondate ona baizik".

Tailer eta irteera bana antolatu ditu

Usurbiltzen Taldeak

Etxean bertan baratza jartzeko teknikak ikasteko tailerra antolatu du Usurbiltzen Taldeak maiatzaren 29an. Gasteizko Bioalai kontsumo kooperatibako kide Pedro Ferrerok eskainiko du "Hiri baratza ekologikoa terrazetan eta balkoietan" izeneko hitzaldia. Barazkien laborantzia, izurri eta gaixotasunen prebentzioa, hiri konpostatzea edota ureztatzeko sistema hizpide izango dituzte. Baratzeez gozatu edota jaten diren hainbat elikagai landatzen ikasteko aukera izango dute tailerlean parte hartzen dutenek.

Beizamara bisitan

Maiatzaren 8rako irteera antolatu dute Usurbiltzenekoek. Beizamara joateko asmoa dute, okinen baserria eta labea ezagutzera. Bide batez, Tolosako Aldabazahar bisitatzera ere joango dira.

Batzarra, astelehenean

Bi ekitaldiz gain, hileroko batzarra burutuko du Usurbiltzen Taldeak. Maiatzaren 3an, 17:30ean Artzabalena.

Asteazkenean, Kultura Aholku Batzordearen bilera

Maiatzaren 5ean asteazkena, Kultura Aholku Batzordea bilduko da beste behin ere. Bilera arratsaldeko 18:30ean hasiko da.

URDAINTZI S.L.
URDAINTZI
0943 362 725
0943 362 725
0943 362 725

ARRANDEGIA PELLO
Puntapax Kalea,7
TIF 36 21 64
USURBIL

Patri Jatetxea
K/nagusia 14. © 943 362 725

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Okandegia - Gozotegia
LABE-GOXO

Igande honetan, Andatza Eguna

Maiatzeko lehen igandean urteroko hitzordua dute herritar askok gertuen dugun mendi gailurrarekin. Andatza Eguna ospatuko da igande honetan, maiatzak 2. Antolatzaileek egun pasan joateko egitaraua prestatu dute. Mendizaleak, eta noski, igandean eguraldi ona egitea baino ez da falta.

Maiatza ailegatzearekin batera, hutsi egin ezineko bi hitzordu dituzte usurbildarrek; aste gutxi barru ospatuko den Sagardo Eguna batetik, eta igande honetako Andatza Eguna.

Bazkalostera arteko plana

Goizeko 11:00etan hasiko dira jan edana banatzen babesleku parera ailegatatutako herritarren artean. Erromeri ukitua izango du goizak, trikitilari eta bertsolariak ez baitira faltako. Indarrak berreskuratuta, eta mendira igotzeaz gain, kirol gehiago egiteko gogoz daudentzat jokoak prestatu dituzte eguerdi



IAZ, BABESLEKU INGURUA HERRITARREZ BETE ZEN ANDATZA EGUNEAN.

parterako. Goizaz gain, Andatza bazkaltzera gelditzea erabakitzen dutenek, kafe eta kopa antolatzaileen kargu.

Eguraldiaren zain

Egitaraua prest beraz. Orain, antolatzaile nahiz herritarren planak mantendu edo aldarazi ditzakeen eguraldiaren zain geratu behar.

Jan edana, erromeri giroan

Erromeria, goiz partean, trikitilari eta bertsolariarekin.

11:00 Hamaiketako: salda, txorizoa, haragi egosia eta edaria.

12:00 Herri kirol eta jokoak haur nahiz helduentzat.

14:00 Bazkaria (norberak berea). Kafea eta kopa bertan banatuko dira.

MENUAK:

* Txekor sahieskia, entsalada, 1/2 litro garagardo (Lowenbrau edo Stella) eta kafea 12 EURO

* Oilaskoa, entsalada, 1/2 litro garagardo (Stella edo Lowenbrau) eta kafea 10 EURO

GARAGARDO BEREZIA
MENUAN 2 EURO GEHIAGO.

Galnera, garagardo bereziak edateko (PREZIO BEREZIAK):

TXEKIAR RUBIA, TXEKIAR BELTZA,
LEFFE RUBIA, LEFFE GORRIA,
LEFFE TOSTATUA...

**ARDI BELTZ GARAGARDOTEGIAREN
BOSTGARREN URTEURRENA (MAIATZAK 7-8-9)**

Puntapax 12, Tel: 943 36 70 54



Ziortza Gazte Elkarteak

25. urteurrena ospatuko du maiatzaren 8an

Jokoak, giro ona, kanpamendua, ibilbideak, elkarbizitza... Ziortza Gazte Elkarteak hori guztia eta gehiago izan da, bilgunean parte hartu duten guraso, begirale eta gazteentzat. 25 urte bete ditu Ziortzak, eta ospatzeko garaia heldu da. Maiatzaren 8an topo egingo dute iraganeko eta egungo kideek. Jarraian datozen eta Ziortzako garai desberdinak gertutik bizi izan dituzten bi lagunok bezala.

Maider Makazaga, Ziortzako begirale eta arduradun izan da azken hamarkadan. Bere esanetan, "Ziortzak egin duen lana etengabea izan da, sakrifizio asko eskatu eta asetsun handia eman duena".

MAIDER MAKAZAGA

"Gazteak lagunartean jator eta errespetuz ibiltzea izan da helburuetako bat"

NOAUA! Noiz izan zenuen lehen hartu emana Ziortzarekin?

Maider Makazaga. Lehen kontaktua, gaztetxo bezala izan nuen. Duela hamazazpi urte, kanpamendura lehen aldiz sukaldari laguntzaile bezala joan nintzen. Izugarri gustatu zitzaidan kanpamendua, zentzu askotan; gazteek nola pasatzen zuten, begiraleen arteko harremana... Peñaloscintosekiko zegoen lotura hura izugarria iruditu zitzaidan. Sendotza egiten ari nintzela begirale bezala sartzea erabaki nuen.

N. Aisialdia bizitzeko modua erabat aldatu da. Aldakuntzok nola bizi izan dituzue Ziortzan?

M. M. Ziortzak gizartearen bilakaera



IRTEERA ETA KANPALDI UGARI ANTOLATU DITU URTE HAUETAN ZIORTZAK.

gertutik ikusteko aukera eman dit. Haien beharrak asko aldatu dira. Garai hartako gazteek ez zuten hainbeste aukera koadrilarekin egun pasa joateko, gaur egun ordea aukera hori edozein unetan dute. Gazteen beharrak eta eskaerak ikusita, Ziortzan hasi nintzen garaiko proiektua egokitu dugu. Oraingo gazteek kezkatzen dituzten gaietaz hitz egiteko beharra dute.

N. Nola deskriba liteke Ziortzak urteotan burutu duen lana?

M. M. Ziortzak egin duen lana etengabea izan da, sakrifizio asko eskatu eta asetsun handia eman duena. Ziortzak egiten duen lana heziketaren barruan sartu genezake baina oso modu apalean; gazteak lagunartean jator eta errespetuz ibiltzea izan da helburuetako bat eta bestea gazte hauek konprometituak izatea herriarekiko, inguruarekiko...

N. Beste 25 urte betetzear egon balitz, nolako Ziortza irudikatzen duzu?

M. M. Ziortzak beste 25 urteetan ere jarraitzea nahiko nuke eta beste aurpegi

batzuetan bada ere, egun gazteengan ikusten dudana ilusioa eta begiraleengan sumatzen dudana freskotasuna ikusten jarraitzea gustatuko litzaidake.

N. Bilgunea ere izan da gazteak elkar ezagutzeko?

M. M. Ziortzak talde desberdinetan dauden gazteak biltzen ditu, nahiz Ziortzatik kanpo bakoitzak bere koadrila izan. Bilgune funtzioa nabarmenago betetzen du kanpamenduak. Bertara, herriko jendearekin zoaz, denok ezagutzen gara, baina ez maila horretan. 15 egunetan 24 orduz gaude han, eta han bakoitzaren alde on eta txarrenak agertzen dira. Aberatsa hori da, han bizitakoa gero herrira ekarri eta horrekin jarraitzen dute.

N. Maiatzaren 8ra begira zaudete jada, ezta?

M. M. Ziortzarekin momentu jakin batean gazte, guraso, heldu, zerikusirik izan duen pertsona oro omenduak sentitzea nahi dugu 25. urteurrena ospatzeko egingo diren jarduera hauen bidez.

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.com

Otar-Goxo
Elkargiak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL

663 08 76 71 • 943 24 34 65

Marian Goenaga, Ziortzako sortzaileetako

“Omenaldi handia merezi dute gurasoek”

NOAUA! Zergatik planteatu zenuten Ziortza sortzea?

Marian Goenaga. Parrokian genbiltzan monitore bezala. Bileren bidez, gaztetxoekin bizitzeko baloreei buruz hitz egin eta hausnartzen aritzen ginen. Apaiz adaketa eman zen orduan. Trintxerpetik lau apaiz etorri ziren; Juan erretorea eta Joxean Larrañaga, Jose Ignacio Eguskiza tartean. Handik astialdiko metodologia ekarri zuten.

N. Lehen ikasturte hura nola oroitzen duzu?

M. G. Zortzigarren mailara arte katekesia egiten zen eta horri jarraipena eman zioten gazteekin hasi ginen Ziortzan. Astero biltzen ginen. Metodologia horren bukaera bezala, kanpamendua proposatzen ziguten. Gazteak Ziortzan erantzuten zutela ikusita, antolatzaera animatu ginen.

MARIAN GOENAGA

“Asko jaso dugu, gazte eta gurasoengandik; emozio handia dut”

N. Nola izan zen zerotik hasi behar izate hori?

M.G. Guri kosta zitzaigun aldaketa egitea. Eskerrak Joxean eta Joxe Ignaziori, Ziortzako motoreak haiek izan ziren. Lan egiteko modua egokia zenez, aurrera egin genuen. Guk geuk monitore ikastaroak egin genituen. Horrek taldeari nortasuna ematen lagundu zion.

N. Nolakoak ziren 80. hamarkada amaierako gazte haiek?

M. G. Gaurko gazteek dituzten baliabide eta aukerak ez zituzten. Ez zegoen egungo eskaintza. Lasaiago bizi ginen. Gazteek gehiago bizitzen zuten, lagunekin egotea Ziortzan. Herrian bertan talde bezala funtzionatzen zuen koadrila handi bat zen Ziortza. Asteburu batzuetan elkarbizitzak egitera joaten ginen, afariak egiten genituen egun seinalatuetan... Beraientzat ezustekoa zen.

Irekiagoak ziren egiten zitzairen eskaintzaren aurrean. Etxeko lehenengo irteera zen haientzat.

N. Eta gurasoak? Haiek ere Ziortzako oinarrietako bat izan dira?

M. G. 25. urteurrenean norbaitekin gogoratu beharko bagenu, gurasoetaz gogoratuko nintzateke. Omenaldi handia merezi dute. Kanpamenduaren bigarren urtean, azpiegitura jartzeko, deialdi bat egin genien gurasoei. Lanerako sortu zen ilusioa eta giroa izugarria zen. Guraso taldeak transmititzen zuen ilusioa guretzat motibagarria eta eskertzekoa izan zen. Baldintzarik gabeko baietza ematen zuten, izugarrizko konfiantza zuten. Orain ere berdin jarraitzen dute.

N. Lehenengo kanpamenduaz zer esan zenezake?

M.G. Trintxerpekoak Camerosera joan ohi ziren. Lehen urtean, proba bezala Lumbrerasen egin genuen, basetxe huts batean. Kanpinetan lo egin eta ondoko ermitan ekintzak egiten genituen. Jendea animatu zen eta oso ondo pasa zuten. Balorazio oso ona egin ostean, gune finkoago baten bila hasi ginen. Kanpamendua zen ekintza arrakastatsua. Ziortzako urte osoko lana borobiltzen zuen; 15 egun elkarrekin bizitzen, elkar lanean, egunerokotasun eta erosotasunetik kanpo, naturarekin harreman zuzenean...

N. Egungo gunea aukeratu zenuten gero?

M.G. Peñaloscintos. Gaztetxoekin herri txiki batera joanda, han bizitzen ikastea zen gure lana. Euskaraz ez zuten hitz egiten, aiton amonak ziren gehienak... Baina haiekin harreman estua sortu zen. Haien etxeak beti zabalik egon dira guretzat. Beraien inplikazioa zoragarria izan da, beti laguntzeko eta euren etxetan hartzeko prest egon dira.

N. Maiatzaren 8an urteurrena ospatzeko tarterik hartuko al duzu?

M.G. Bai, noski. Ziortza oso garrantzitsua izan da niretzat. Guri harreman berriak ekarri zizkigun, jende berria eza-



“ASKO JASO DUGU, GAZTE ETA GURASOENGANDIK”, ADIERAZI DIGU MARIAN GOENAGAK.

gutzeko eta ikasteko aukera izan dugu. Asko jaso dugu, gazte eta gurasoengandik. Emozio handia dut. Familia asko dira herrian Ziortzarekin lotutako esperientzia bizi izan dutenak. Ziortzak herri guztia ukitu du, mugimendua sortu du herrian. Gazteak, gurasoak... Denak proiektu batean barruan egotea gaur egun, halako erreferentzia izatea garrantzitsua da. Bertan lanean jarraitzaera animatu nahi nuke jendea, pertsonalki benetan asko jasoko dutelako.

Maiatzaren 8an, urteurreneko ospakizuna

16:00 Altxorren bila erraldoia:

LH 5-DBH 4ko ikasleei zuzendua.

20:00 Kalejira herrian zehar.

21:00 Afaria frontoian. Ondoren, argazki emanaldia eta DJ Larra.

OHARRAK:

-Afaritarako menua: kroketak; atun entsalada patata eta tipulin olio-ozpina-rekin; masail erregosiak patata purearekin; etxeko torrada karamelatuak; kafea, kopa eta purua.

-Afaritarako txartelak: 25 eurotan salgai, Txiribogan, Bordatxon eta Antxetan. Txartelak eskuratzeko azken eguna, maiatzaren 5a.

Antolatzailea: Ziortza Gazte Elkartea.

III. Kale Antzerki Egunarekin, gustura

Lehen edizioa ezustekoa izan zen, iazko bigarrena egitasmoa finkatu zuena eta hirugarren hau, antolatzaileen esanetan, erabakiorra. Oso gustura amaitu dute antolatzaileek, baita larunbatean, III. Kale Antzerki Egunean parte hartu zuten publiko eta taldeek ere. Parte hartzaileen harrera ikusita, jaialdiak Usurbilen etorkizunik baduela esan liteke. Hori bai, Alex Tellok lerrootan aipatu bezala, egungo izaerari eutsita.

“Taldeak oso gustura zeuden, publikoarekin txoratuta”, adierazi du Kale Antzerki Eguneko antolatze lanetan aritu den Alex Tellok. Oso sentsazio onarekin amaitu zuten Euskal Herritik etorritako antzezle taldeek. Antzerkia izan baita, aurtengo egitarauko ardatz eta bereizgarri nagusia. Telloren ustez, “uste baino hobeto atera zen eguna. Egitarauan ez zen hutsunerik nabarmendu”.

Kalea, antzoki

Eguraldia lagun, herritar ugari atera zen kalera eguerditik aurrera. Egun osoan zehar eskaini ziren emanaldietara herritarrek nola gerturatu ziren ere modu baikorrean baloratzen dute antolakuntzatik. Pasa den apirilaren 24an, publikoa saioen artean murgiltzen joan zela adierazi du Tellok. Goizaldera arte. Usurbilgo Riki, Txer eta Konpainia taldeak borobildu zuten jaialdia.

Bestelakoan, umorea, zirkoa, dantzak... denetariko saioek tartea izan dute ospatu berri den hirugarren edizioan. Artzabal, pilotalekua, Dema plaza edota Mikel Laboa plaza inguruak antzoki inprobisatuetan bihurtu ziren, egunero-ko itxura alboratuta.

Etorkizuneko jaia

Erreferentzialtasuna hartzen ari den ekimena da Kale Antzerki Eguna. Publikoarentzat batetik, baina bereziki, Euskal Herriko taldeentzat. Jaialdi honek badu etorkizunik Telloren esanetan ordea, “ez zaio gehiago eskatu behar. Dagoen bezala ondo dago”. Edizio honek estreinakoaren parekoa izan dela dio, Usurbilentzat neurrikoa eta egokia. Antolatzaileek argi dute; “jaialdi honetarako Usurbil herri mundiala da”.



UKELELE JAUNAK EMAN ZIDON HASIERA JAIALDIARI. SUAREKIN JOLASEAN ARITU ZEN, MALABARE IKUSGARRIAK EGINEZ. AKROBAZIA UGARIZ OSATUTAKO SAIDA ESKAINI ZUEN.



OLINPIAR JOKOETAKO HIRU KIROLARIK DEMA PLAZAKO ETXEBIZITZETATIK HASI ZUTEN EMANALDIA.



TALDEEN JATORRIA ETA SAIDEN EDUKIAK BEZALA, ANITZAK IZAN ZIREN ESKENATOKIAK ERE.



IRUDIAN, LASARTE-DRIAKO LANDABERRI TALDEAREN KOREOGRAFIA EMANALDIA.

Mikel Laboarengana hurbilduko gaitu

Jexux Artze Elkarteak antolatu duen egitarauak

2002ko udaberrian zendu zen Jexux Artze. Lehen urteurrenean, bere lagunek hamabostaldi ederra antolatu zuten. Jexux Artzek egindako ekarpena aldarrikatu zuten eta Ez Dok Amairuren inguruko erakusketa interesgarria antolatu zuten. Geroztik, urtero hainbat ekitaldi antolatzen ditu Jexux Artze Elkarteak. Aurtengo egitarauan, Mikel Laboaren inguruko ikusentzunezko bat, Iñaki Salvadorren kontzertu bat eta "Aitarekin bidaian" izeneko antzezlanak bildu dituzte.

Mikel Laboarekin maiz aritu ziren Artze anaiak. Ez Dok Amairu taldeko kideak izan ziren hainbat urtez. Aurten, Jexux Artzeren omenezko ekitaldietan hain zuzen, Mikel Laboaz izango da protagonista.

"AITAREKIN BIDAIA" OBRA

"Antzezlan honekin hasiko da maiatzaren 8an Jexux Artzeren omenezko kultur zikloa"

"Mikel Laboa, 1934-2008"

Iaz, kantari donostiarraren inguruko ikusentzunezkoa eman zen argitara, "Mikel Laboa 1934-2008" izenekoa. Lan hori Sutegiko auditorioan ikus ahal izango dugu maiatzaren 14an.

Mikel Laboaren bidelagun izan zen azken unera arte Iñaki Salvador pianojolea.



MIKEL LABOAREN BIDELAGUN IZAN ZEN AZKEN UNERA ARTE IÑAKI SALVADOR PIANOJOLEA; MAIATZAREN 15EAN SUTEGIN ARITUKO DA.

Iñaki Salvador Trioren kontzertua Sutegin

Maiatzaren 15ean, "Lilurarik ez" saioa eskainiko du Iñaki Salvadorrek Sutegin. Jazz estiloaren koordinatetara egokitu ditu Mikel Laboaren hainbat kantu eta horiek joko ditu beste bi musikariren laguntzaz.

Hasteko, antzerkia; "Aitarekin bidaian"

Jexux Artze Elkarteak antolatu duen kultur zikloa, ordea, "Aitarekin bidaian" izeneko antzezlanarekin hasiko da. Datorren astean, maiatzaren 8an, Sutegin izango dira Jose Ramon Soroz eta Joseba Apaolaza aktoreak.

Sarrerak 8 eurotan daude salgai, aldezturik, Lizardi dendan.

MAIATZAK 8 LARUNBATA

"Aitarekin bidaian" antzezlanak

20:00etan Sutegiko auditorioan. Sarrerak: 8 euro aldezturik Lizardi dendan; 10 euro egun berean.

MAIATZAK 14 OSTIRALA

"Mikel Laboa" dokumentalak

20:00etan Sutegiko auditorioan. Sarrerak: Lizardin eskuragarri, doan (gehienez bi sarrera pertsonako).

MAIATZAK 15 LARUNBATA

Inaki Salvador Trio

20:00etan Sutegiko auditorioan. Sarrerak: 8 euro aldezturik Lizardi dendan eta 10 euro egun berean.

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

piatxoak
ogitartekoak
piater konbinatuak

TABERNA

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
943 69 68 52 · 620 800 186

Usurbil FTko espedizioa, pozik Bartzelona aldean

Usurbil FT taldekoak Bartzelonan izan ziren Aste Santuan. Jokalari, entrena-tzaile eta guraso talde bat elkartu eta autobusez abiatu ziren Katalunia aldera. Besteak beste, Athletic eta FC Barcelona arteko partida ikustera hurbildu ziren. Handik bueltan, Usurbil FT taldeko zuzendaritzakoek hainbat argazki bidali zituzten NOAUA!ra, tartean, hauxe. Iru dia Athleticen hotelean aterata dago. Bertan zain zuten Andoni Iraola usurbildar jokalaria txurigorria.

Lerro batzuen bitartez, Usurbil FT taldeak "Andoni Iraolak gurekin izan zuen arreta eskertu nahi du. Athleticen hotele- ra hurbiltzera gonbidatu gintuen eta bi kamiseta oparitu zizkigun. Biak, bilbotar jokalaria guztiek sinatutakoak".



IRUDIAN, USURBIL FT TALDEKO ESPEDIZIOA, ANDONI IRAOLA ATHLETICEKO JOKALARI USURBILDARRAREKIN BATERA.

Eskubaloiko neskak, laugarren Valladoliden

Caja Burgos Aula C taldeak Girabazi zuen pasa den astebur- uan Valladoliden Espainiako Sektoreko jubenil mailako eskubalo- i txapelketa. Usurbilgo nesken talde- ak laugarren postuan amaitu zuen, BM Porriño galiziarren eta Union Sevilla taldekoen atzetik.

Aurkariekin giro ona izan dute baina Union Sevillakoek eta arbitro- ek haien aurkako neurketan eraku- tsitako jarrera deitoratzen dute Usurbilgoek.

Amaitzeko, datorren asteburuan Gipuzkoako Kopako txapelketari ekingo diote.



Bi lagunentzako afaria Txixtardinen

Eskubalo- i taldeek antolatzen Eduten errifa zozketak bi ir- bazle utzi ditu azken egunotan; Juanpe Nazabali Txixtardin Beltza jatetxean bi lagunentzako afaria egokitu zaio, 4.187 zenbakidun errifagatik.



Bi lagunentzako afaria Saizarren

Saizarren bi lagunentzat afaria Sirabazi du, bestalde, Francisco Liebenak, 5.027 zenba- kidun errifaren jabeak. Ohi bezala, eskubalo- i elkartekoek errifa zozke- tan parte hartzen duten jatetxe eta herritarrak eskertu nahi dituzte.

**BENTA
TABERNA**

**Oilasko erreak
Ogitartekoak**

San Ignacio 1, behea
USURBIL 943 36 93 05

Josue
Igeltseritza:

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

**GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK**

Aristitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

Agirretxe Taldea osatu dute Imanolen lagunek

Realak eta Imanol Agirretxek badute bai jarraitzaile eta lagunik Usurbilen. Horren erakusgarri, usurbildarraren alde sortutako taldea. Pasa den apirilaren 22an aurkeztu zuten, Antxeta jabetze parean. Senide, lagun eta hainbat herritarrek parte hartu zuten ekitaldian, eta aurpegi ezagunik ere ez zen falta izan. Agirretxeren talde kide eta Realeko jokalaririk Zubikarai, Ansotegi, Mikel Gonzalez, Mikel Aranburu edota Xabi Prieto etorri baitziren usurbildarra babestera.

Taldearen eskutik, oroigarri eta taldeko bufanda eta kamiseta bana jaso zituen Imanolek. Lehen Mailara igotzeko aukera gertu du Realak eta nabari zen bai festa giroa aurkezpen ekitaldian. Animu, babes eta indarra jaso zuten zaleen partetik Agirretxek, eta bertan ziren Realeko gainerako jokalariek. Halakoetan ohi den moduan, ez zen autografo eskaerarik falta izan. Petardo burrunbatsuekin eta afari merienda batekin amaitu zuten ekitaldia.



HAINBAT OPARI JASO ZITUEN IMANOL AGIRRETXE REALEKO JOKALARIAK.

Agirretxe Taldea, sarean

Aurkezpen ekitaldian Agirretxe Taldeak kaleratu duen materiala erosteko aukera izan zuten bertaratu zirenek. Baita bazkide egiteko aukera ere, kanpaina abiatu baitute.

Eta zabalik jarraitzen du. Taldeari buruzko nondik norakoak, ireki duten web gunean jarrai daitezke: agirretxetaldea.com

Martxan da Paleta Goma Txapelketa

Usurbilgo Pilota Elkartek Paleta Goma Txapelketa antolatu du. 18 urtetik gorakoei zuendua, maiatzaren erdialdean hasi eta Santixabeletan amaituko da. Maiatzaren 10ean astelehena amaituko da izena emateko epea.

Betebeharreko baldintzak

- Bi pilotarien izenak eman behar dira. Partiden egutegia hasieratik zehaztuta geratuko da eta ezingo da inolaz ere aldatu. Horretarako izango dira ordezkioak.

- Partidak igande arratsaldetan 17:30etik aurrera eta izen emate kopurua handia balitz maiatzaren 11ko bileran zehaztuko litzateke beste egun bat.

- Izena emateko: 626-110923 zenbakira deitu. Izen-emate kuota: 20 euro.

- Usurbildarrek bakarrik parte hartu ahal izango dute.

- Txapelketaren nondik norakoak

zehazteko maiatzaren 11n bilera egingo da arratsaldeko 20:00etan herriko pilotalekuan.

- Emakumeen arteko txapelketa jokatuko da gutxienez hiru bikote animatzen badira.

Herri Arteko Pilota Txapelketa

Hiruna amaitu zen Alegia eta Usurbil arteko norgehiagoka. Baina tanteoari esker, Alegiak egin du aurrera Herri Arteko Txapelketan.

Usurbilgo Pilota Txapelketa

Asteburu honetan **nagusien txapelketa** partida gehiago jokatuko dira, larunbatez zein igandez, goizeko 10:30ean hasita.

Jubenilen kasuan, igande honetan jokatuko dira lehen partidak, goizeko 10:30etik aurrera, Taberna-Beola Huete-Uriarteren aurka.

Oiana Blancok brontzezko domina Europako Txapelketan

Luzapenean lizan bazen ere, Valentina Moscatt italiarra garaitzea lortu zuen Oiana Blancok eta, horri esker, brontzezko domina eskuratu



zuen Usurbil Judo Taldeko kideak Vienan, 48 kilo arteko txapelketan. Oriotarra da Oiana baina txikitatik Usurbil Judo Taldeko kide da. Aurten, Oiana Blancok ADO izeneko beka eskuratu du. Kirolari batek jaso dezakeen bekarik handiena da.

Usurbil Cup txapelketan,

izen-ematea amaitzear

6 eta 16 urte arteko herritarrei zuzendua dago Usurbil Cup. Ostiral honetan, apirilak 30, amaituko da izena emateko epea. Ordaindu beharreko kuota, taldeko 40 euro.

Oiardo kiroldegian eman behar da izena.

Agenda !**Apirilak 30 ostirala**

- Euskal presoen aldeko elkarretaratzea
Mikel Laboa plazan, 20:00etan.
- Arcusgi taldea Sutegin, 20:15ean.

Maiatzak 2 igandea

Andatza Eguna (ikus 9 or.).

Maiatzak 3 astelehena

Usurbiltzen taldearen batzarra,
17:30ean Artzabalena.

Maiatzak 5 asteazkena

- Kultura Aholku Batzordearen bilera,
udaletxean 18:30ean.
- Euskal Memoria Fundazioaren
aurkezpena Sutegin, 19:30ean.

Goardiako farmaziak**Apirilak 29, osteguna**

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Apirilak 30, ostirala

Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Maiatzak 1, larunbata

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil

Maiatzak 2, igandea

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Maiatzak 3, astelehena

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Maiatzak 4, asteartea

De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Maiatzak 5, asteazkena

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Maiatzak 6, osteguna

Gil, Nagusia 24 Lasarte

Maiatzak 7, ostirala

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Maiatzak 8, larunbata

Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Maiatzak 9, igandea

De Miguel, Nagusia32 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

*Chucla farmazia (22:00-09:00),
Kayaaberaz, 48, Hernani (943 551 793)
Usurbilen, soilik eguerdira arte

**Arcusgi kantu taldearekin,
Kortsikako doinuak Sutegin**

Arcusgi, hala du izena
Kortsikatik gure artera hur-
bilduko den musika taldeak.
Bastiako eskualdekoak dira eta
1984tik hona ari dira kantuan, kor-
tsikar hizkuntza zein kulturaren alde
lanean. Ostiral honetan Sutegin
abestuko dute.

Bitxikeria moduan, aipatzekoa da
euskal kantuak ere badirela euren
errepertorioan; beraz, ostiral honetan
Sutegin eskainiko duten saioan ziur
izango dela euskal doinurik tartean.
20:15ean hasiko da emanaldia.

Iparra-Hegoa Kultur Elkarteak
antolatatu du Arcusgiren kontzertua.



EUSKAL KANTUAK ERE ABESTU
DHI DITU KORTSIKAKO
TALDE HONEK.

Sarrerak aldeaz aurretik 5 eurotan
daude salgai (kiroldegian, hain
zuzen). Egunean bertan Sutegin, 8
eurotan jarriko dira salgai.

Asteazkenean,**Euskal Memoria****Fundazioaren aurkezpena**

Euskal Memoria Fundazioaren
proiektua datorren astean aur-
keztuko da **Sutegin, maiatzaren 5ean**
asteazkena, arratsaldeko 19:30etik
aurrera. Bideo bat jarriko da lehenik
eta ondoren fundazioko kide batek
hainbat xehetasun eskainiko ditu.

Aitzaga elkarteak antolatu du
Fundazio honen aurkezpena eta igorri
diguten prentsa-agirian diotenez,
“Eskolatik hasita, Euskal Herriak bi
estatuekin mendeetan duen gatazka-
ren xehetasunak ezkutatu, desitxuratu
edo aldebateko bertsioak kontatu izan
zaizkigu”. Horri aurre egiteko, “Euskal
Memoria Fundazioak memoria bil-
tzen hasia da, datuak eta testigantzak
galdu ez daitezten. Etorrizuna eraiki-
tzeko zimendua memoria delako”.

Jaietako danborradan**izena emateko****epea ireki da**

Santixabeletan, **umeen danborra-**
dan atara nahi duenak izena maia-
tzaren 6a osteguna baino lehen eman
beharko du. Agerialdeko patioan, arra-
tsaldeko 18:00etan. Lehen entsegua
maiatzaren 7an ostirala egingo da,
19:00etatik 19:45era. Umeen danbo-
rrada, uztailearen 2an ostirala izango da
aurten, eguerdiko 12:00etan aterako da.

Helduen danborradan parte hartze-
ko, maiatzaren 7an eman behar da
izena. Egun horretan egingo da lehen
entsegua. Maiatzaren 7an ostirala,
20:30ean, Agerialdeko patioan.

Helduen danborrada, uztailearen 1ean
izango da, 19:00etatik 21:00ak arte eta
00:00etan txupinazoarekin batera.

Informazio gehiago telefono zenbaki
honetan: 943 371 999.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.com

izagirre

ELEKTRIZITATEA

943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitate@hotmial.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR**ERRAZKIN**
Igeltzentza S.L.Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679K/ Nagusia 47, Behea A.
20170 USURBIL

OSASUN GIDA

Optika



USURBIL
OPTIKA

Entzumeneko aparatuak • Igerilekuko tapoiak neumira eginda
BEHERAPENAK eguzkitako betaurrekotan

Zubiaurrenea, 10. USURBIL • ☎ 943 370 269

Fisioterapia



Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak

Ola kalea, 12 LASARTE-ORIA • ☎ 943 370 306

Masajista



Kima
MASAJE LKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

☎ 943 366 197
Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Farmazia



iturralde
botika

Tomas Iturralde botika
R.P.S. Nº 88/07

- ✓ Maisu formulak
- ✓ Dermofarmazia
- ✓ Produktu Homeopatikokoak

Borda berri 1, 20170 USURBIL ☎ 943 36 33 95

Hortz klinika

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

OLARRONDON OSPAKIZUNAK

EZKONTZAK
BATAIOAK
JAUNARTZEAK
DESPEDIDAK...

ESKATU AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE!!!
PREZIO BEREZIAK

OLARRONDOKO MENUAK

- Eguneroko MENUA 16€
(OSTIRAL GAUA BARNE)
- ASTE BUKAERAKOA 30€

2 menuetan edaria, ogia eta kafea barne

OLARRONDOKO KARTA

Aukera ederra!
Arrain, haragi eta itsaskietan
berezitasuna.



Olarrondo Jatetxea
5 zenbakia. USURBIL
erreserbak: ☎ 943 360 376
www.olarrondo.es

olarrondojatetxea@gmail.com